

Hamahiru poeta palestinar: gailendu dadila hitza

ITZULPENAK: EIDER BEOBIDE, OLATZ ESTEBAN, LARRAITZ FAGUNDEZ, GARAZI GOLDARAZENA,
OIHANE GURRUTXAGA, MIREN IRIZAR, LEIRE LAKASTA, MARIA OSES, MAIDER RAMIREZ, AINHOA
SALABERRIA, IÑIGO SATRUSTEGI, NORA UNANUE, ARKAITZ URANGA, ANITZ ZAPIRAIN

KOORDINAZIOA ETA EDIZIOA: ISABEL ETXEBERRIA RAMÍREZ

Artikulu honek azken hamarkadetako Palestinako poesiaren erakusgarri bat biltzen du, euskarara itzulita: 13 poetaren 16 poema, 14 itzultzailearen eskutik. 1917an jaioetako Fadwa Tuqanetik hasi, *spoken word* edo hitz esana darabilen Rafeef Ziahahtik pasatu, eta Yaffa As poeta transeraino, Palestinaren aurkako zapalkuntzaren hamasei ikuspegi eta lekukotza jasotzen dira bildumatxo honetan.



Ezintasunak eta frustrazioak hartzen gaitu batzuetan, eta, halakoetan, kontsolamendu urri baina ziurra izaten dugu: egiten dakiguna egitea. Artikulu honetan, gure ohiko jarduna baliatu nahi izan dugu palestinarren aurkako zapalkuntza salatzeke. Haiei eman diegu ahotsa, eta haien bizipenak eta aldarrikapenak zabaltzen saiatu gara gure tresna behinena erabiliz: itzulpena.

Poeta palestinarren antologiatxo bat dakargu, beraz: 13 poeta, 16 poema, 14 itzultzaile. Bilduma apertatsua da hau, dokumentazio lan ziurrenik desordenatu baten emaitza, baina intuizioak lagundua eta jakin-minak eta enpatia hauspotua. Badira xx. mendeko Palestinako poesiako izen handiak, baita xxi. mendeko poeta hasiberriak ere. Badira 1948ko Nakbaren ondorioz deserriraturakoen ondorengoak eta badira Gazatik ihes egin berri dutenak. Israelen erasoak bertatik bertara bizi izan dituzten poetak mintzo dira, baita beren erbeste eroso eta seguruetako bizimodu friboloarengatik errudun sentitzen direnak ere.

Hamasei poemetatik sei arabieraz idatziak dira jatorrian; poema horiek ingelesezko eta batzuetan baita gaztelaniazko zubi-testuak erabiliz euskaratu dira. Gainontzeko poemak ingelesez sortuak dira, eta ingelesez itzuli dira zuzenean.

Fadwa Tuqan

Fadwa Tuqan (Nablus, Palestina, 1917 — Nablus, Palestina, 2003) Palestinako poeta handi eta ezagunenetakoa bat da. Haren poesian, bilakaera argi bat igartzen da: hasierako molde tradizionaletatik eta gai intimoetatik, bertso librean oinarritutako poesia konprometituago eta nazionalismoak markatuago batera, bereziki 1967ko Sei Eguneko Gerraz geroztik. Hona dakargun poema 1969koa da; hauxe dugu Tuqan euskaraz irakurtzeko lehen aukera.

كفاني أظل بحضنها

كفاني أموت على أرضها
 وأُدفن فيها
 وتحت ثراها أدوب وأفنى
 وأُبعثُ عشباً على أرضها
 وأُبعثُ زهرة
 تعيثُ بها كفُّ طفل نمته بلادي
 كفاني أظل بحضن بلادي
 تراباً
 وعشباً
 وزهرة

Haren baitan egon baino ez dut nahi

Nire lurraldean hil baino ez dut nahi,
han lurpera nazaten,
haren emankortasunean urtu eta deuseztatu
nire lurraldean belar bilakatzeko,
nire lurraldeko haur batek
hostoak kenduko dizkion
lore gisa berpizteko.
Nire sorterriaren baitan egon baino ez dut nahi
izan lur
belar
edo lore.

(Itzulpena: Miren Irizar)

Muin Bseiso

Muin Bseiso (Gaza, Palestina, 1928 — Londres, Erresuma Batua, 1984) poeta, antzerkigilea eta irakaslea izan zen, palestinar erresistentziaren poesiaren aitzindarietako bat. Poeta iraultzaile eta politikoa dugu, palestinar askapen mugimenduko kide eta militante komunista izan baitzen, eta masak mobilizatzeko idazten baitzuen bere poesia. Hainbatetan kartzelatu eta torturatu zuten, eta ziegako paretetan edo pospolo-kaxetan idatzi zituen bere poemarik ezagunenak, arrakaletan gordetako arkatzez. Bizipen horien isla da, hain zuzen ere, eskuartean dugun poema.

نعم لن نموت ولكننا

سنقتلُ الموتَ من أرضنا
هناك... هناك... بعيداً بعيداً...
سيحملني يا رفاقي... الجنود...
سيُلْقون بي في الظلام الرهيب
سيُلْقون بي في جحيم القيود
نعم لن نموت، ولكننا....
سنقتلُ الموتَ من أرضنا
لقد فتشوا غرفتي يا أخي
فما وجدوا غيرَ بعض الكتب
وأكوامٍ عظمٍ هم... إخوتي
يُنون ما بين أم... وأب
لقد أيقظوهم... بركلاتهم
لقد أشعلوا في العيون الغضب
نعم لن نموت، ولكننا....
سنقتلُ الموتَ من أرضنا
أنا الآن بين جنود الطغاة
أنا الآن أُسحبُ للمعتقل
وما زال وجهُ أبي ماثلاً
أمامي... يُسلّحني بالأمل
وأمي... تتن... أنينا طويلاً
ومن حولها إخوتي يصرخون
ومن حولهم... بعضُ جيراننا
وكل له... ولدٌ في السجون
نعم لن نموت، ولكننا....
سنقتلُ الموتَ من أرضنا

Bai, ez gara hilen, baina

Heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik
han... han... urrunean...
soldaduek eramanen naute, kamaradok
jaurtiko naute iluntasun ikaragarria
jaurtiko naute kateen infernura
bai, ez gara hilen, baina...
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik
miatu zidaten logela, anaia,
eta soilik aurkitu zituzten liburu batzuk
eta hezur pilak... nire anaiak
ari dira amaren eta aitaren artean auhenka
esnatu zituzten ostikoka
piztu zieten sumina begietan
bai, ez gara hilen, baina...
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik
tiranoen soldaduen artean naiz orain
arrastaka naramate atxilo orain
aitaren bisaia hor dirau
parez pare, itxaropenez armatzen nau
eta amak auhen... auhen luze bat
eta haren jiran, anaiak oihuka
eta haien jiran, zenbait auzokide
eta haietako bakoitzak haurra du kartzelan
bai, ez gara hilen, baina...
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik

ولكنني رغم بطش الجنود
رفعتُ يداً أثقلتها القيودُ
وصحتُ بهم: إنني عائدُ
بجيش الرفاق... بجيش الرعود
نعم لن نموتَ، ولكننا....
سنقتلع الموت من أرضنا
هناك أرى عاملاً في الطريقِ
أرى قائد الثورة المنتصر
يلوحُ لي بيده من حديدٍ
وأخرى تطاير منها الشررُ
نعم لن نموتَ، ولكننا....
سنقتلع الموت من أرضنا
أنا الآن بين مئات الرفاقِ
أشدُّ لقبضاتهم... قبضتي
أنا الآن أشعرُ أنني قويُّ
وأنني سأهزمُ... زنزانتي
نعم لن نموتَ، ولكننا....
سنقتلع الموت من أرضنا
نعم لن نموتَ، نعم سوف نحيا
ولو أكلَ القيدُ من عظمينا
ولو مزقتنا سياطُ الطغاة
ولو أشعلوا النارَ في جسمينا
نعم لن نموتَ، ولكننا
سنقتلع الموتَ من أرضنا

baina soldaduen krudelkeriagatik ere
altxatu nuen kateek zapaldutako eskua
eta egin nien deiadar: itzuliko naiz
kamaraden armadarekin... trumoiaren armadarekin
bai, ez gara hilen, baina...
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik
han ikusten dut langile bat bidean
ikusten dut iraultzaren lider garailea
burdinazko eskuaz agurtzen nau
eta besteari txinpartak darizkio
bai, ez gara hilen, baina...
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik
ehunka kamaradaren artean naiz orain
ukabilaz estutzen ditut haien ukabilak
indartsu sentitzen naiz orain
eta garaituko dut ziega
bai, ez gara hilen, baina...
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik
bai, ez gara hilen; bai, biziko gara
girgiluak hezurak jaten badizkigu ere
eta tiranoen zartailuek erdibitzen bagaituzte ere
geure gorputzei su ematen badiete ere
bai, ez gara hilen, baina
heriotza errotik erauziko dugu geure lurretik

(Itzulpena: Garazi Goldarazena eta Anitz Zapirain)

Taha Muhammad Ali

Taha Muhammad Ali (Seforis, Israel, 1931 — Nazaret, Israel, 2017) poeta eta ipuingilea izan zen. Galilean jaioa, Nakhbaren ondorioz bere familiarekin jaioterria utzi eta urtebete Libanon eman ondoren, Nazaret hartu zuen bizileku, hil zen arte. Oinarritzko ikasketak bukatu ez, eta autodidakta izan zen; eguna bere souvenir dendan lanean pasa eta gero, poesia irakurtzeko eta idazteko baliatzen zuen gaua. Samih al-Qasim eta Mahmud Darwixen garaikide, kaletarragoa da Taha Muhammad Aliren poesia, molde tradizionalai ez hain lotua. Arabiera klasikoa eta dialektoa nahasian erabiliz, egunerokotasun-printzen bitartez islatzen du palestinar herriaren sufrimendu historikoa.

يوم صعود صابر وزينب إلى السطح

من نُقْبٍ صغيرٍ صغيرٍ	صابر الصبيّ
في صدرٍ صابر الصغير	والبنت زينب
تدقُّ احمرارُ رُغُلولي...	والمُخيمِ رصاص وانفجارات
سائلُ حار!	صعدا إلى السطح.
زينب لم تهبط عن السطح.	صابر قفز عن السطح
	ظِلَّ جبينه أعلى من السطح
كثيرون في المخيم شاهدوا «زينب»	قدماه على الأرض
تطير...	وتدان في الأرض...
ترتفع ترتفع	أمام الجند
وتغيب	والرصاص مطر.
سنونوة تغيبُ	
في طيَّات غيمات	زينب مَرَسَتْ على السطح
السموات السبع	صابر بعد أن مَرَّق قميصه
تغيب!	وكشف عن صدره
	صاح بالجنود:
	أطلقوا أطلقوا!
	زينب ألقت زجاجتها الفارغة
	على سيارة الجيب
	الدنيا رصاص
	دخان ورصاص

Sábir eta Zainab teilatura igo zirenekoa

Sábir, mutiko bat,
Zainab, neskatila bat,
eta kanpamentua: balak eta leherketak.
Teilatura igo dira.
Sábirrek salto egin du teilatutik,
bere kopetaren itzala teilatua baino altuagoa da,
oinak lurrean
bi hesola iltzaturik
soldaduen aurrean,
balak turrustan.

Zainab teilatuan gotortu da.
Sábirrek atorra ireki du
eta bularraldea erakutsiz
oihu egin die soldaduei:
Egin, egin tiro!

Zainabek botila huts bat bota du
jeeparen gainera,
balaz ito da airea,
kea eta balak.

Zulo nimitño batetik,
Sábirren bihotz txikiari
dario, uso batena bailitzan,
isuri gorrixka, beroa...
Zainab ez da teilatutik jaitsi.

Kanpamentuan askok ikusi zuten Zainab
hegaldaka aireratzen...
eta gora egin zuen, gora eta gora,
eta desagertu egin zen.
Enara bat desagertu zen
hodei ertzen artean
zazpi zeruetatik
desagertu zen.

(Itzulpena: Larraitx Fagundez eta Leire Lakasta)

Raxid Hussein

Raxid Hussein (Musmus, Israel, 1936 — New York, AEB, 1977), Samih al-Qasim bezala, «barrualdeko palestinar» deitu izan direnetako bat izan zen, hau da, 1948ko Nakbaren ondoren Israelgo estatuaren mugen barruan geratu zen palestinar gutxiengoko kide, Israelgo nazionalizataduna. Poeta eta kazetari ez ezik, itzultzaile ere aritu zen, arabieraren eta hebreeraren artean. Gazte hil zen, sute batean, New Yorken, hara alde egina baitzen Israelen bere ideia politikoak garatzeko sentitzen zuen ezintasunagatik etsiak jota. Haren obraren parte handi bat hil ostean bildu eta argitaratu zen.

ثورة على سفر

ما الذي ظلَّ من الثورات، من أجمل أحلامي القديمة
غير آثارٍ وليمةٍ
ونجومٍ فوقَ أكتافِ الذين امتهنوا شرَّ الهزيمة؟!

ما الذي ظلَّ سوى جيشٍ مقالاتٍ حبالى
بحسابات بنوكٍ
وتفاسيرٍ لتبريرِ الجريمة؟!
ما الذي ظلَّ سوى مطربةٍ ان ولولت: «حيفا ويافا»
عرقَ البنتِ دنانيرَ من القدس القديمة؟!
ما الذي ظلَّ سوى أن تبدأ الثورة من أولِ حرفٍ
ما الذي ظلَّ سوى قتلِ الجريمة؟!

تولدُ الثورةُ في عَيْنين من دونِ وطنٍ
تولدُ الثورةُ فلاحاً بلا أرضٍ
وبوليساً له أرضُ
وأرضُ كُلِّ ما فيها انسجِنَ
تولدُ الثورةُ لما يعرفُ الأمي والكاتبُ والأعمى الحقيقةَ
فيصيرُ الحرفُ من دونِ ثمنٍ
ويصيرُ الرأيُ من دونِ ثمنٍ

ولهذا يا رفاق
أنا تعبَان من التخديرِ من كلِّ خطاباتِ المماليكِ العربِ
ومن الربِّ الذي يسكنُ في سبعِ سماواتٍ طباقاً
ذلك الربُّ الذي لم نبق له
غيرَ تحريمِ الخنازيرِ وتحليلِ الذهبِ
أنا تعبَان من الربِّ الذي حولَه جدي ببيعِ جنانٍ وحواري
والذي أصبحَ قرّاناً.. لحرقِي
سوفَ يقضي العمرُ في جمعِ الحطبِ

Iraultza abian

Zer geratzen da iraultzetatik, antzinako amets politetatik?
Bankete baten hondakinak,
izarrak porrota azaltzen diharduten horien sorbaldetan.

Zer geratzen da, ez bada testu batailoi bat
banku-kontuz eta
krimenaren justifikazio burutsuz betea.
Zer geratzen da... ez bada trobalari bat intzirika: «Haifa, Yaffa»,
eta banku bat Jerusalem zaharreko dinarez izerditan.
Zer geratzen da... ez bada lehenengo letratik iraultza berregitea.
Zer geratzen da... ez bada krimena erailtzea.

Iraultza aberririk gabeko begietan jaiotzen da,
iraultza lurrik gabeko nekazari jaiotzen da,
polizia dela lursailen jabe,
eta lurra kartzelaratua.
Iraultza jaiotzen da analfabetoak, idazleak eta itsuak egia ezagutzen dutenean
eta iritzia ez denean erosten
eta letrak ere ez.

Horregatik, kamaradak,
nekatuta naukate sermoiek,
eta arabiar gobernari ergelen diskurtsoek,
eta zazpi zeruetako Jainkoak,
Jainko horrek utzi digun bakarra
txerriaren debekua eta errearen zilegitasuna baita.
Nekatuta nauka Jainkoak,
zeina gure aitonak paradisu eta huri saltzaile bihurtu baitzuen,
eta sugin,
egurra bildu dezan ni erretzeko.

ولهذا يا عرب
أصبح الصبرُ تعبُ
فأغضبوني واغضبوني واغضبوا!
تشتهي الثورة لحظات الغضب
ثم ماذا ؟
ولدتني طفلة في السوق قدام جميع الكهنة
ثم جرّوها الى السوق وما زالت هناك طفلة ممتهنة
ولهذا حينما أكتب شعراً أتمرّق
ودم من رحم أُمي فوق وجهي يتدفّق
عندها ينبجّ شعري باحثاً
عن وجوه الخونة

غير أنني ...
إن يرحّ أعصابكم كذبُ أصرّ أكذب شاعر
وأعبئ لكم الشعر طبولاً ... وأكابر
وأعبي
أنا شمس لا تهاجر!
وإذا شئتم ... سأسترجع بالشعر بلادي في ثوابي-

ولتسامحني بلادي!
ولتسامحني الثواني!
ولتسامحني القوافي والدفاتر!

غير أنني يا رفاق
رغم ما في الكذب من شهيد
سأبقى العمر ... فلاحاً يكابر
أينما يمشي تروا ميلاد تائر.
تفرح الثورة بالناس
و لا يفرح بالثورة إلا قلب تائر
وبلادي ثورة في السجن
لكن ...
كلكم فيها سجين
كلكم فيها مسافر!

صدقوني يا رفاق!
وطني ما عاد أرضاً وحقولاً وبيادر
وطني أصبح ثورة
ثورة تجعل حتى أقدم الثوار ... تائر.

Horregatik, arabiarrok,
pazientzia nekagarria da jada,
aspertuta naukazue, oso aspertuta, ezin aspertuago.
Iraultzak amorru pixka bat galdegiten du.
Eta zer gehiago?
Nitaz erditu zen neskato bat merkatuan apaiz nagusien aurrean,
eta plazara eraman zuten arrastaka eta han dago, neskato bat laidotua.
Horregatik apurtzen naiz poema bat idazten dudanean
eta amaren uteroko odolak bustitzen dit aurpegia,
eta zoratu egiten zait poesia
traidoreen aurpegiaren bila.

Hala ere, ni...
Gezur bat aski bada zuek lasaitzeko
poetarik gezurtiena izango naiz,
danbor hotsezko poesia lortuko dizuet eta, arrandiaz,
kantatuko:
«Emigratzen ez duen eguzkia naiz».
Eta hala nahi baduzue... Segundo batzuetan berreskuratuko dut gure herria poema batekin,

herriaren baimenarekin,
segundoen orratzaren baimenarekin,
errimen eta koadernoaren baimenarekin.

Hala ere, ni, kamaradak,
agerikoa den arren gezurra
beti izango naiz... nekazari harro,
eta ematen dudana pauso bakoitzean ikusiko duzue iraultzaile bat jaiotzen.
Jendeak egiten du iraultza zoriontsu.
Bihotz iraultzaileak dira soilik iraultzarekin zoriontsu.
Gure herria iraultza bat da kartzelaratua.
Baina...
Zuek denok zarete haren preso,
eta denok egiten duzue harekin bide.

Sinetsidazue, kamaradak,
gure aberria ez da jada lur, zelaia eta soro,
gure aberria gaur iraultza da,
iraultza bat, iraultzaile zaharrena ere iraultzaile egiten duena.

(Itzulpena: Larraitx Fagundez eta Leire Lakasta)

Samih al-Qasim

Samih al-Qasim (Zarqa, Jordania, 1939 - Safed, Israel, 2014), Raxid Hussein bezala, «barrualdeko palestinar» deitu izan direnetako bat izan zen, hau da, 1948ko Nakbaren ondoren Israelgo estatuaren mugen barruan geratu zen palestinar gutxiengoko kide, Israelgo nazionalitateduna. Kazetaritza eta literatura sorkuntza jardun zuen bizitza osoan (48 literatura aldizkariaren sortzailea izan zen, besteak beste), eta palestinarren borrokaren eta aldarrikapenaren zerbitzura jarri zituen tresnok. Euskarari ekartzen zaion bigarren poema da hau; 1991n, «Arbaso zaharren odola» euskaratu zuen Joseba Sarrionandiak.

مقطع من محضر تحقيق

-وكيف تسمى البلاد؟
 -بلادي
 -إذن تعترف؟
 -أجل سيدي أعترف
 وما أنا بالسائح المحترف!
 -تقول بلادي؟
 -أقول بلادي
 -وأين بلادي؟
 -بلادك
 -وأين بلادك؟
 -بلدي
 -وقصف الرعود؟
 -صهيل جوادي
 -عصف الرساح؟
 -امتدادي
 -خصف السهول؟
 -اجتهادي
 -وكبر الجبال؟
 -اعتدادي
 -وكيف تسمى البلاد؟
 -بلادي
 -وكيف أسمى بلادي؟
 -بلادي

Galdeketa baten laburpena

- Eta nola esaten diozu herrialdeari?
- Nire herrialdea.
- Aitortu egiten duzu, beraz?
- Bai, jauna, aitortzen dut.
- Ez naiz turista.
- Nire herrialdea esaten al duzu?
- Nire herrialdea esaten diot.
- Eta zure herrialdea non da?
- Zure herrialdean.
- Eta non da zure herrialdea?
- Nire herrialdean.
- Eta non jotzen du hodeiak?
- Zaldien irrintzian.
- Eta non jotzen du haizeak?
- Nik nahi dudan leku horretantxe.
- Eta non lautada emankorrak?
- Nire ahaleginean.
- Eta non hazten dira mendiak?
- Nire uste onean.
- Eta nola esaten diozu herrialdeari?
- Nire herrialdea.
- Eta nola esaten diot nik nire herrialdeari?
- Nire herrialdea...

(Itzulpena: Oihane Gurrutxaga)

Hanan Axrawi

Hanan Axrawi (Nablus, Palestina, 1946) politikari gisa da nagusiki ezaguna, Lehen Intifadaren garaian palestinarren ordezkari aritu baitzen Ekialde Hurbileko bake negoziatioetan. Literaturako irakaslea ere bada, ordea, baita ipuingilea eta poeta ere. «Ia lau urteko norbaiten egunerokotik» 1988ko poema bat da.

From the Diary of an Almost-Four-Year-Old

Tomorrow, the bandages
will come off. I wonder
will I see half an orange,
half an apple, half my
mother's face
with my one remaining eye?

I did not see the bullet
but felt its pain
exploding in my head.
His image did not
vanish, the soldier
with a big gun, unsteady
hands, and look in
his eyes
I could not understand

I can see him so clearly
with my eyes closed,
it could be that inside our heads
we each have one spare set
of eyes
to make up for the ones we lose

Next month, on my birthday,
I'll have a brand new glass eye,
maybe things will look round
and fat in the middle—
I've gazed through all my marbles,
they made the world look strange.

I hear a nine-month old
has also lost an eye,
I wonder if my soldier
shot her too—a soldier
looking for little girls who
look him in the eye—
I'm old enough, almost four,
I've seen enough of life,
but she's just a baby
who didn't know any better.

Ia lau urteko norbaiten egunerokotik

Bihar kenduko dizkidate
bendak. Eta diot:
laranja erdia ikusiko al dut,
sagar erdia, nire amaren
aurpegiaren erdia,
geratzen zaidan begiarekin?

Ez nuen bala ikusi
baina sentitu nuen haren mina
nire buruan lehertzen.
Haren irudia ez
zen desagertu, soldadua
fusil erraldoi batekin, esku
dardartiak, eta so bat bere begien
barruan
ulertu ezin izan nuena.

Hain ikus dezaket argi
begiak itxita,
izan liteke geure buruen barruan
bakoitzak begi pare bat izatea
ordezko
galtzen ditugunak konpentsatzeko.

Datorren hilean, nire urtebetetzean,
kristalezko begi berri bat izango dut
agian gauzak biribil ikusiko dira,
eta erdialdean mardul;
nire puxtarri guztietatik begiratu dut,
hain arraro ikusten da mundua.

Bederatzi hileko neskato batek ere
begi bat galdu omen du,
galdetzen dut nire soldaduak
hari ere tiro egin ote zion —soldadu bat
begietara begiratuko dioten
neskatoen bila—
banaiz aski heldu, ia lau urte,
aski ikusi dut bizitzan,
baina bera haurtxo bat besterik ez da
deus hoberik ezagutu ez duena.

(Itzulpena: Ainhoa Salaberria)

Naomi Xihab Nye

Naomi Xihab Nye (Saint Louis, AEB, 1952) poeta palestinar-estatubatuarra da. Ama estatubatuarra du, eta aita, berriz, 1948ko Nakbaren ondoriozko errefuxiatu palestinarra. Poesia lan oso zabal baten egile da, eta munduko poesia jasotzen ere aritu da hainbat antologiatan. Horrez gain, haurrentzako literatura eta nobela ere landu ditu. Haren poesian, nabaria da aitaren aldetiko familiari eta bereziki amonari Jerusalemen egindako bisiten arrastoa.

Green Shirt

His mother did not wash it for this,
for him to be carried dead by two friends
across the thirsty ground of Gaza.

That morning he put it on, she told him
he looked handsome, a fine deep color
for an unfolding day.

Alkandora berdea

Amak ez zion horretarako garbitu,
bi lagunek hilik eramán zezaten arrastaka
Gazako lur egarrituan barna.

Jantzi zuen goiz hartan, amak esan zion
guapo zegoela, kolore eder bizi bat
esnatzen ari zen egunerako.

(Itzulpena: Eider Beobide eta Maria Oses)

Separation Wall

When the milk is sour,
it separates.

The next time you stop speaking
ask yourself why you were born.

They say they are scared of us.
The nuclear bomb is scared of the cucumber.

When my mother asks me to slice cucumbers,
I feel like a normal person with fantastic dilemmas:

Do I make rounds or sticks? Shall I trim the seeds?
I ask my grandmother if there was ever a time

she felt like a normal person every day,
not in danger, and she thinks for as long

as it takes a sun to set and says, Yes.
I always feel like a normal person.

They just don't see me as one.
We would like the babies not to find out about

the failures waiting for them. I would like
them to believe on the other side of the wall

is a circus that just hasn't opened yet. Our friends,
learning how to juggle, to walk on tall poles.

Bereizketa hesia

Esnea garrazten denean,
bereizi egiten da.

Hitz egiteari uzten diozun hurrengoan,
galdetu zeure buruari zergatik jaio zinen.

Gure beldur direla diote.
Bonba nuklearra pepinoaren beldur da.

Gure amak pepinoak mozteko eskatzen didanean,
dilema fantastikoak dituen pertsona arrunt sentitzen naiz:

Xerrak ala bastoiak egingo ditut? Haziak kendu behar dizkiot?
Gure amonari galdetzen diot ea garairen batean

pertsona arrunt sentitu zen egunero,
arriskutik kanpo, eta denbora batez pentsatzen egon da

eguzkia sartzen den artean, eta esan du, Bai.
Ni beti sentitu izan naiz pertsona arrunta.

Kontua da haiek ez nautela horrela ikusten.
Gustatuko litzaiguke haurtxoek ez jakitea

porrota dutela zain. Gustatuko litzaidake
haurrek sinestea hesiaren beste aldean

oraindik ireki ez duen zirkua dagoela. Gure lagunak,
malabarak egiten, hankapaloetan ibiltzen ikasten.

(Itzulpena: Eider Beobide eta Maria Osés)

Rafeef Ziadah

Rafeef Ziadah (Beirut, Libano, 1979) kazetaria eta poeta da. Nakbaren ondorioz Palestinatik deserriratutako familia baten ondorengoa, *spoken word* edo hitz esana du tresna nagusi Palestinaren kausaren aldeko aktibismoan jarduteko. Hiru album ditu plazaratuak gaur-gaurkoz: *Hadeel* (2009), *We Teach Life* (2015) eta *Three Generations* (2020). Hona dakargun poema («We Teach Life, Sir» jatorrizkoan) bigarren albumean argitaratu zen; merezi du Ziadah poema erreztatzen ikustea eta entzutea sarean.

We Teach Life, Sir

Today, my body was a TV'd massacre.

Today, my body was a TV'd massacre that had to fit into sound-bites and word limits.

Today, my body was a TV'd massacre that had to fit into sound-bites and word limits filled enough with statistics to counter measured response.

And I perfected my English and I learned my UN resolutions.

But still, he asked me, Ms. Ziadah, don't you think that everything would be resolved if you would just stop teaching so much hatred to your children?

Pause.

I look inside of me for strength to be patient but patience is not at the tip of my tongue as the bombs drop over Gaza.

Patience has just escaped me.

Pause. Smile.

We teach life, sir!

Rafeef, remember to smile.

Pause.

We teach life, sir!

We Palestinians teach life after they have occupied the last sky.

We teach life after they have built their settlements and apartheid walls, after the last skies.

We teach life, sir!

But today, my body was a TV'd massacre made to fit into sound-bites and word limits.

And just give us a story, a human story.

You see, this is not political.

We just want to tell people about you and your people so give us a human story.

Don't mention that word "apartheid" and "occupation".

This is not political.

You have to help me as a journalist to help you tell your story which is not a political story.

Today, my body was a TV'd massacre.

Bizitza irakasten dugu, jauna

Gaur, nire gorputza telebista masakre bat da.

Gaur, nire gorputza audio klip eta hitz mugetan sartu beharreko masakre bat da.

Gaur, nire gorputza audio klip eta hitz kopuru mugetan sartu beharreko masakre bat da, neurtutako erantzun bat emateko nahikoa estatistika dituen.

Eta nire ingelesa perfektionatu dut, NBERen ebazpenak ikasi ditut.

Eta hala ere, galdetu zidan, Ziadah andrea, ez duzu uste guztia konponduko litzatekeela zuen umeei hainbeste gorroto irakasteari utziz gero?

Geldi.

Neure barrura begiratzen dut pazientziaz jokatzeko indar bila baina pazientzia ez daukat mingainaren puntan Gaza bonbardatzen duten bitartean.

Pazientziak alde egin dit.

Geldi. Egin barre.

Bizitza irakasten dugu, jauna.

Rafeef, gogoratu barre egiteaz.

Geldi.

Bizitza irakasten dugu, jauna.

Palestinarrok bizitza irakasten dugu haiek azken zerua kolonizatu ondoren.

Bizitza irakasten dugu haiek beren kokaguneak eta Apartheid hormak eraiki ondoren, azken zeruen gainetik.

Bizitza irakasten dugu, jauna.

Baina gaur, nire gorputza audio klip eta hitz mugetan sartu beharreko telebista masakrea da.

Eta eman istorio bat soilik, giza istorio bat.

Ikusten, hau ez da politika.

Jendeari zuei buruz eta zuen jendeari buruz nahi diogu hitz egin, emaguzu beraz giza istorio bat.

Ez aipatu «Apartheid» eta «okupazio» hitzak.

Hau ez da politika.

Zuk niri kazetari naizenez zure istorioa kontatzen, politikoa ez den istorioa kontatzen lagundu behar didazu.

Gaur nire gorputza telebista masakre bat da.

How about you give us a story of a woman in Gaza who needs medication?

How about you?

Do you have enough bone-broken limbs to cover the sun?

Hand me over your dead and give me the list of their names in one thousand two hundred word limits.

Today, my body was a TV'd massacre that had to fit into sound-bites and word limits and move those that are desensitized to terrorist blood.

But they felt sorry.

They felt sorry for the cattle over Gaza.

So, I give them UN resolutions and statistics and we condemn and we deplore and we reject.

And these are not two equal sides: occupier and occupied.

And a hundred dead, two hundred dead, and a thousand dead.

And between that, war crime and massacre, I went out words and smile "not exotic"; smile, "not terrorist".

And I recount, I recount a hundred dead, two hundred dead, a thousand dead.

Is anyone out there?

Will anyone listen?

I wish I could veil over their bodies.

I wish I could just run barefoot in every refugee camp and hold every child, cover their ears so they wouldn't have to hear the sound of bombing for the rest of their life the way I do.

Today, my body was a TV'd massacre

And let me just tell you, there's nothing your UN resolutions have ever done about this.

And no sound-bite, no sound-bite I come up with, no matter how good my English gets, no sound-bite, no sound-bite, no sound-bite, no sound-bite will bring them back to life.

No sound-bite will fix this.

We teach life, sir!

We teach life, sir!

We Palestinians wake up every morning to teach the rest of the world life, sir!

Zer deritzozu medikazioa behar duen Gazako emakume baten istorioa kontatzen badiguzu?
Zer deritzozu zuk?
Ba al duzu eguzkia estaltzeko adina hezur hautsi?
Utzazkidazu zure hildakoak eta eman haien izenen zerrenda mila eta berrehun hitzetan
gehienez.
Gaur, nire gorputza audio klip eta hitz mugetan sartu beharreko telebista masakrea da odol
terroristarekiko sorgor diren haien barruak mugitzeko.
Baina sentitzen dute.
Sentitzen dute Gazako aziendagatik.
Beraz, eman dizkiet NBEren ebazpenak eta estatistikak eta kondenatzen dugu, gaitzesten
dugu, errefusatzeko dugu.
Eta hauek ez dira bi alde berdin: okupatzailea eta okupatua.
Ehun hildako, berrehun hildako, mila hildako.
Eta gerra, krimen eta masakre artean, hitzak bota eta irribarre egin dut «exotikoa izan gabe»
«terrorista izan gabe».
Berrirori zenbatzen dut, ehun hildako zenbatzen ditut, mila hildako.
Ba al dago inor?
Entzungo al du norbaitek?
Haien gorputzen gainetik egin nahi nuke negar.
Errefuxiatu kanpamentu guztietara oinutsik korrika egin eta haur bakoitza hartu nahi nuke
besoetan eta belarriak itxi, gelditzen zaien bizitza guztian zehar bonbak entzun behar ez
ditzaten, nik bezala.
Gaur, nire gorputza telebista masakre bat da.
Eta uztazu esaten, zuen NBEren ebazpenek ez dutela ezer egin honekin.
Ezta audio klip batek berak ere, lortuko dudana klip batek berak ere, berdin du nire ingelesa
zenbat hobetzen dudana, klip batek berak ere, batek berak ere, batek berak ere, batek berak ere
ez die bizitza bueltatuko.
Audio klip batek berak ere ez du hau konponduko.
Bizitza irakasten dugu, jauna.
Bizitza irakasten dugu, jauna.
Gu, palestinarrok, egunero esnatzen gara munduari bizitza irakasteko, jauna.

(Itzulpena: Nora Unanue)

Maya Abu al-Hayat

Maya Abu al-Hayat (Beirut, Libano, 1980) poeta, narratzailea eta itzultzailea da. Ikasketaz ingeniaria bada ere, literaturari emana bizi da. Hainbat nobela eta poema liburu argitaratu ditu, baita haur eta gazte literaturako lan ugari ere. Telebistan aritu da haurrentzako saioak aurkeztu, eta aktore lanak ere egin ditu. Hemen dakargun poema haren poesia AEBn ezagutarazteko arabieratik ingelesera itzultako antologia batetik hartua da: *You Can Be the Last Leaf* (2022).

I Suffer a Phobia Called Hope¹

Each time I hear that word
 I recall the disappointments
 that were committed in its name:
 the children who don't return,
 the ailments that are never cured,
 the memory that's never senile,
 all of them hope crushed
 beneath its wings as I smash
 this mosquito on my daughter's head.

*

The grieving have only the unknown.
 It's their only staple and inheritance.
 Pain has no logic. All things redeem
 the grieving except your rational questions.

*

I wish that no one goes
 and no one comes.
 All going is a stroke of myth
 and each return
 a punctured lung.

1. Poema hau jatorriz arabieraz idatzia izan arren, arabierazko testua eskuratu ezin, eta zubi-hizkuntza gisa erabili dugun ingelesezko itzulpena jarri dugu konparagai.

Itxaropena deritzon fobia bat pairatzen dut

Hitz hori entzuten dudan aldiro
haren izenean jasan ditugun
desengainuak datozkit burura:
itzuli ez diren umeak,
sekula sendatu ez diren gaitzak,
zargaldu ez diren oroitzapenak,
itxaropenak denak zapaldu ditu
bere hegoen azpian
nire alabaren buruan dagoen eltxoa
zapaltzen dudan bezalaxe.

*

Atsekabetuek ezjakintasuna besterik ez dute.
Beren sostengua eta herentzia da.
Oinazeak ez du logikarik. Den-denak arintzen du
bihozmina, zure galdera arrazionalak izan ezik.

*

Nahi dut inor ez joatea
eta inor ez etortzea.
Alde egite bakoitza fikzio-kolpe bat da
eta itzulera bakoitza
zulatutako birika bat.

(Itzulpena: Arkaitz Uranga)

Mosab Abu Toha

Mosab Abu Toha (Al-Shatiko errefuxiatu kanpamentua, Palestina, 1992) poeta, saiakeragile eta zutabegile gisa nabarmendu da. Gaur-gaurkoz, bi poema liburu ditu argitaratuak: *Things You May Find Hidden in My Ear* (2022) eta *Forest of Noise* (2024). 2017an, Edward Said liburutegia sortu zuen, Gazan, eta hura zuzentzen eta hornitzen jardun zuen, Israelen bonbek suntsitu zuten arte. 2023an, Gazatik irtetea lortu zuen, eta, gaur egun, AEBn bizi da. Abu Toharen poesiatik euskarari egindako bigarren ekarpena da hau; 2023an, haren «Zer da etxea?» poema itzuli zuen Beñat Sarasolak.

On a Starless Night

On a starless night,
I toss and turn.
The earth shakes, and
I fall out of bed.
I look out my window. The house
next door no longer
stands. It's lying like an old carpet
on the floor of the earth,
trampled by missiles, fat slippers
flying off legless feet.
I never knew my neighbors still had that small TV,
that old painting still hung on their walls,
their cat had kittens.

Izarrik gabeko gau batean

Izarrik gabeko gau batean
jirabiraka nabil ohean.
Lurrak dar-dar egin, eta
bertatik erori naiz.
Leihotik begiratu dut. Ondoko etxea
jada ez dago
zutik. Alfonbra zahar baten antzera
lurzoruan botata dago,
misilek zapaldua, txapin handiak
hankarik gabeko oinetatik hegan.
Ez nekien bizilagunek oraindik telebista txiki bera zutenik,
oraindik margolan zahar hori horman zintzilik zutenik,
beren katuak katakumeak izan zituenik.

(Itzulpena: Eider Beobide eta Maria Osés)

My Grandfather Was A Terrorist

My grandfather was a terrorist—
He tended to his field,
watered the roses in the courtyard,
smoked cigarettes with grandmother
on the yellow beach, lying there
like a prayer rug.

My grandfather was a terrorist—
He picked oranges and lemons,
went fishing with brothers until noon,
sang a comforting song en route
to the farrier's with his piebald horse.

My grandfather was a terrorist—
He made a cup of tea with milk,
sat on his verdant land,
as soft as silk.

My grandfather was a terrorist—
He departed his house,
leaving it for the coming guests,
left some water on the table, his best,
lest the guests die of thirst after their conquest.

My grandfather was a terrorist—
He walked to the closest safe town,
empty as the sullen sky.
vacant as a deserted tent,
dark as a starless night.

My grandfather was a terrorist—
My grandfather was a man,
a breadwinner for ten,
whose luxury was to have a tent,
with a blue UN flag set on the rusting pole,
on the beach next to a cemetery.

Gure aitona terrorista zen

Gure aitona terrorista zen.
Bere soroa zaintzen zuen,
patioko arrosak ureztatu,
amonarekin zigarroak erre
hondartza horian, etzanda,
errezorako alfonbra bat nola.

Gure aitona terrorista zen.
Laranjak eta limoiak biltzen zituen,
anaiekin arrantzan aritu eguerdira arte,
kanta lasaigarri bat abesten zuen
ferratzailearenera bidean bere zaldi pintoarekin.

Gure aitona terrorista zen.
Katilukada bat esnedun te prestatu
eta bere lur berdeetan esertzen zen;
leunak ziren, zeta lez.

Gure aitona terrorista zen.
Etxetik joan zen,
zetozen gonbidatuentzat uzteko,
eta mahai gainean laga zeukan urik onena,
garaipenaren ostean gonbidatuak egarriz ez hiltzeko.

Gure aitona terrorista zen.
Herri seguru gertuenera joan zen oinez,
gau beltza bezain hutsik zegoen.
Kanpin-denda abandonatu bat bezain ezdeus,
izarrik gabeko gau bat bezain ilun.

Gure aitona terrorista zen.
Gure aitona gizon bat zen,
hamarreko familiaren sostengu,
kanpin-denda bat izatea zuen luxua,
NBERen bandera urdin bat haga herdoilduan,
hilerri baten ondoko hondartza batean.

(Itzulpena: Eider Beobide eta Maria Oses)

Noor Hindi

Noor Hindi (Amman, Jordania, 1995) poeta eta saiakeragile palestinar-estatubatuarra da. Palestinar errefuxiatuen alaba, haurra zelarik bere familiarekin Estatu Batuetara heldu, eta han egin du bizimodua. 2022an argitaratu zuen bere lehen poema liburua (*Dear God. Dear Bones. Dear Yellow*), eta, 2025 honetan, poeta palestinarren antologia bat kaleratu berri du (*Heaven Looks Like Us*). Hona dakargun «Pikutara zure arte-irakaspenak, nire jendea hiltzen ari da» poema sare sozialen bidez plazaratu zuen lehenengoz, 2020ko abenduan. Bigarren poema, «Bonbilla apurtua dir-dirka», haren lehen liburu hartan kaleratu zen.

Fuck Your Lecture on Craft, My People Are Dying

Colonizers write about flowers.
I tell you about children throwing rocks at Israeli tanks
seconds before becoming daisies.
I want to be like those poets who care about the moon.
Palestinians don't see the moon from jail cells and prisons.
It's so beautiful, the moon.
They're so beautiful, the flowers.
I pick flowers for my dead father when I'm sad.
He watches Al Jazeera all day.
I wish Jessica would stop texting me Happy Ramadan.
I know I'm American because when I walk into a room something dies.
Metaphors about death are for poets who think ghosts care about sound.
When I die, I promise to haunt you forever.
One day, I'll write about the flowers like we own them.

Pikutara zure arte-irakaspenak, nire jendea hiltzen ari da

Kolonizatzaleek loreei buruz idazten dute.
Nik kontatzen dizuet haurrek harriak jaurtitzen dizkietela israeldar tankeei
bitxilore bihurtu baino une batzuk lehenago.
Ilargiaz arduratzen diren poeta horien modukoa izan nahi dut.
Palestinarek ez dute ilargia ikusten ziegetatik eta kartzeletatik.
Hain da ederra ilargia.
Hain dira ederrak loreak.
Loreak biltzen ditut aita hilarentzat triste nagoenean.
Al Jazeera ikusten du egun osoan.
Jessicak niri Ramadan zoriontsua idazteari uztea nahiko nuke.
Badakit estatubatuarra naizela nonbait sartzen naizen aldiro zerbait hiltzen delako.
Mamuei soinuak axola zaizkiela uste duten poetentzat dira heriotzari buruzko metaforak.
Hiltzen naizenean, zin dagit beti jarraituko dizudala.
Noizbait, loreei buruz idatziko dut gureak balira lez.

(Itzulpena: Olatz Esteban)

Broken Light Bulb Flickering Away

Every week I fall in love
with a new bad idea. I hope
one day to magic my body
away. I wish for everyone to leave
me alone and talk to me
at once. Please,
forgive me. All I've ever wanted
is to be the poet laureate
of Flamin' Hot Cheetos. All my desires
go unnoticed. On my birthday, I visit a fortune-teller.
She tells me beware of the letter J.
Jackhammers. Joylessness. Jukeboxes.
White men named Jason. Jesus,
there is so much junk in my brain.
My father escaped war,
and here I am, the perfect
immigrant child. I assimilate so much
I drink Diet Coke
at the rate of a middle-aged
white woman. My mother wanted
to be a writer. I should hold
her sacrifices but instead sob
into a donut decorated like the US flag
at 3 a.m. My cat is tired of my antics.

My parents named me Light because
their lives lie in shadow
but I'm a poor example of joy.
Sometimes I get so sad
I think about eating a quesadilla,
or assembling a tire swing,
or taking off my bra. Instead I dream
of the big dumb heart my mother
hands me. She tells me to carry it.
I drop it every time.

Bonbilla apurtua dir-dirka

Idea txar berri batekin
maitemintzen naiz astero. Espero dut
egunen batean nire gorputza ustekabea
ezereztea. Bakean utz nazatela guztiek
eta kasu egin diezadatela
aldi berean. Mesedez,
barkadazue. Flamin' Hot Cheetosen
poeta ohoratua izatea da
inoiz nahi izan dudana gauza bakarra.
Oharkabea igarotzen dira
nire desio guztiak. Pitonisa bat ikusi nuen
nire urtebetetze egunean.
J hizkiarekin kontuz ibiltzeko aholkatu zidan.
Jantokiak. Jasanezintasuna. Jostailuak.
Jason izeneko gizon zuriak. Jesus,
zakar gehiegi daukat buruan.
Gerratik ihes egin zuen aitak,
eta hemen nauzu, ume immigrante
perfektua. Hain nago asimilatua
ezen emakume zuri batek bezainbeste
Coca-Cola Light edaten dudana. Idazlea
izan nahi zuen amak. Beraren sakrifizioei
eutsi beharko nieke baina AEBko
banderarekin apaindutako donut bat jaten
ari naiz goizeko 3:00etan.
Katua ere nekatu dute nire txorakeriek.

Gurasoek Argia izena jarri zidaten
haiek itzaletan bizi direlako
baina pozaren adibide kaskarra naiz.
Oso triste jartzen naiz noizbehinka
eta quesadilla bat jan nahi dut
edo pneumatikozko zabuetan kulunkatu
edo bularretakoa erantzi. Aldiz, amak
ematen didan bihotz handi eta traketsarekin
egiten dut amets. Eramateko eskatzen dit berak.
Niri, ordea, erortzen zait aldiro.

(Itzulpena: Maider Ramirez)

Yaffa As

Yaffa As palestinar poeta trans bat da. 2023an argitaratu zuen bere lehen poema liburua, ingelesez: *Blood Orange*. Izenburuko laranjak Jaffako laranjak dira, izen bereko herrian ekoizten hasi zen laranja mota bat Israelgo estatuaren okupazioaren eta enpresa sionista usurpatzaileen sinbolo bihurtu dena gaur egun. Yaffa Asen poesiak hainbat bazterkeria mota jorratzen ditu: jatorria, buru-osasuna, kuintasuna...

Diaspora

being in the diaspora
is having genocide
at your door
and you're not home to greet it

being in the diaspora
is wondering
which cut from your paycheck
killed your cousin

being in the diaspora
is being told
you are not from anywhere
while they kill you everywhere

being in the diaspora
is being
murdered
without ever bleeding

Diaspora

diasporan egotea
da genozidioa
zure atean joka edukitzea
eta hari harrera egiteko etxean ez egotea

diasporan egotea
da zeure buruari galdetzea
zure soldataren zer zatik
hil zuen zure kusia

diasporan egotea
da denek zuri esatea
ez zarela inongoa
leku guztietan hiltzen zaituztelarik

diasporan egotea
da
eraila izatea
odol tantarik isuri gabe

(Itzulpena: Iñigo Satrustegi)

Zein Bseiso

Zein Bseiso palestinar poeta eta autore bat da, eta egun Jordanian bizi da. Muin Bseisoren biloba da, eta, beraren hitzetan, aitonaren eragina nabarmena da bere obran. Palestina dute ardatz haren poemek, eta bizipen pertsonaletan oinarritzen dira. AEBn egin zituen ikasketak, eta dakargun poema Students for Justice in Palestine unibertsitate-ikasleen antolakundeak argitaratzen duen hilabetekarian argitaratu zen, 2024ko uztailen. «Sharpen the sword on your own neck» esaldiak ematen dio izena bere poema bildumari, eta, era berean, Muin Bseisoren poema bateko lerroa da.

Sharpen the Sword on Your Own Neck

we were instructed to smile for the cameras
while they pushed and watched him drown in
the frozen red of the boiling sea
and you could not deter your eyes
they came in biblical swarms
Proclaimed
“you must sharpen your sword on your own neck”
does my blood not pave the sidewalks?
my rotting flesh not comprise the flourishing earth?
you will never be rid of the smell
the growth of the unholy
flooded with your broken promise
stuck between existing and not
where the shore is littered with bullet shells
and the sea no longer meets the ashy sand
they told you to smile with what little you have left
for the cameras that peer into homes of solid ivory walls
with no cracks in the ceiling,
and your child does not mistake fireworks or thunder for bombs

Zorroztu ezpata zeure lepoan

kamerei irribarre egiteko agindu ziguten
haiek bitartean hura bultzatu eta ikusi zuten itotzen
itsaso goriaren gorri izoztuan
eta ezin izan zenituen begiak itzuli
etorri ziren Bibliako izurriak nola
Aldarrikatu zuten
«zorrotz ezazu ezpata zeure lepoan»
ez al du nire odolak espaloia zolatzen?
nire haragi ustelak lur emankorra osatzen?
ez zara inoiz libratuko kiratsaz
profanoaren haztea
zure promesa hautsiaz gainezka
denaren eta ez denaren artean trabatua
non itsasertza bala zorroz zikindurik dagoen
eta itsasoak jadanik harea hauskararekin bat egiten ez duen
gelditzen zaizun apurrarekin irribarre egiteko esan zizuten
kamerei, kuxkuxean dabiltzanei marfilezko horma sendoko etxeetan,
sabaian arrakalarik ez duten horietan,
eta zeure haurrak ez ditu ez su artifizialak ez trumoiak bonbekin nahasten.

(Itzulpena: Garazi Goldarazena eta Anitz Zapiain)